

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
69n. ZENBAKIA
URRILLA
1983




Martín Vázquez

DELEGADO PROVINCIAL DE *Cultura*
Delegado a las *12 1/4* horas del día
16 de *12* de 19 *83*
El Delegado Provincial,
pu. [Signature]



**URIOLEA EUZKADI'n
BERMEO'KO OTSO-ETXEA (Kasinoa)
(1983-VIII-26)**

IDAZTIÑO TXUKUN ATSEGINGARRIA



Aita Txanton GORBEIA'n

Idaztiño edo liburuzka atsegin-garri bat irakurri barri gara, obeto esateko bigarrenez irakurri dogu. Orain iruren bat illa argitaldua da eta orduan irakurria, baiña atsegin izan jakulako barriz irakurri dogu. Gure ZER onetan ezaguna dan Aita Goiria'k idatzia da berau.

Ez da lenengo idaztia Aita Txanton'ek —onetara da ezagunagoa bere adizkideon artean— idatzi dauan au, beste iru edo lau idaztiño mardualagoak be baditu, izparringietan, aldizkarietan, idaztiak dituan ainbeste ta aibeste idazlan zenbatu barik, Amerika'ko Colombia'n gaztetatik egon zanean asita, bai olerkiz eta bai itz-lauz eta beti Bizkai'ko euzkera garbi txukunez idatzita, oraingo «GERNIKA'KO ARBOLA» bezela.

* * *

Idaztiño au, Aita Onandia'k diñozkun lez, antzezki bezela idatzita dago; bakar-izketa mamitsuak eta batez be olerki ta abesti aberkoiz orniduta. Ainbat abesti gure

Irakasle Arana-Goiri'tar Sabin'enak, Elizanburu'renak, Euzkadi'ko Urretxindorra'renak ta abar eta, beste ainbat Txanton adizkide min onek berak sortuak.

Orrexegaitik atzezlekura urten baiño len entzungo jako neskatillan bateri «Goiko mendian edurra dago, / errekaldean izotza...» Edo, urren beste neskatilla batek abestuko dau «Aztuta ikusten zaitut / Arbola maitia, / aspaldiz dozu galdu / zure izatea...»

Gerotxuago entzungo da gizonetzko abotsa, «Katez loturik dago Euzkadi, / baiñan azkatuko da; / ...» ta abar.

Era orretara jarraituaz laster entzungo da talde bateko baten abesti biozkorra «Lotuta dakust gure Euzkadi / atzerriean gaxoa, / danok bat eginda azka dagigun / emonaz bizi beroa».

Jarraituaz beste neska batek abestuko dau «Aldi baten gure Ama, / Aberri maitegarria / ...» antzokia estalduta dala.

Eta jarraian abestu dogun Sabin'en «Mendiko negarra» talde batek abestuta, «Ene Aberri laztana, jausi zara erbestepian, / obia erio-tza da / ...».

Baita era orretara jarraitzen dasku idaztiño guztiak eta, jarraian entzungo dira Sabin'en beste abesti aberkoi asko, biotz saminduz abestutako «Ze ikusten dabe / nire begijok, / au danau daukust galduta...». Edo aurreratuago «Bixi eztan / lugi guztijan / Ene Ama / ...». Edo «Euzkotarrak gara; / bizi beiz Jaungoikua eta Lagi Zarra»...

* * *

Era onetara jarraitzen dau Txanton'ek bere idaztiño guztian, asieran esan dogunez abesti aberkoiak gogoratuazoz, baiña, gure idazlantxua luzeagoa ez agitearren, beste abesti bi edo iru baiño

ez doguz aipatuko, naita beste asko be ba'diran bere idaztitxoan aipatzea irabazita dabenak esate baterako «Euzko gudariak gara / Euzkadi azkatzeko, / gerturik dauku odola / bere alde emoteko... edo Elizanburu'ren» Urrundik ikusten dut, ikusten mendia, / ... «Eta, azkenez, Arrese-Beitia'ren abesti anaikorra, nai-ta antziña idatzitakoa izan, gaurkotasunez beterik dagolako: «Aztu daiguzan gure artean / izan diran asarreak, / izan gaitezana anaiak eta / euzkaldun zintzo-garbiak. / Betor guraso zarren fedea, / betoz asaben legeak, / negarrak leortu daizan / ni jaio nintzan erriak».

* * *

Benetan idaztiño txukun atsegingarria Aita Goiria'k argitaldu barri dauana. Ezin leiteke euzkaldun bat, ainbat geiago abertzalea bada, erosi ta irakurri barik geratu, bez eun lauerleko baiño ez dalako bere salneurria ta ain txukuna dalako. Batzoki askotan dago salgai eta lerro oneik idatziten dituanak be bai.

Orain ogei ta amarren bat urte edo geiago Aita Txanton Amerika'n ogeiren bat urte mixiolari egin ondoren Euzkadi'ra etorri zanean esan eustan: Josu, Gorbeya egon-bagia nok-eta, Kolombia ta Panama'n nagoela amesetan ikusiten nayuan mendi eder ori eta, benetan ikustatu nai joat.

Udagoiena zan eta, ara joan gintzazan eta, ondo ezagutzen dodan mendi orretako inguru asko erakutsi, bertako Gurutze azpian emen ikusiten dan argazkia Txanton'eri atera ta jatsi gintzazan barriz Zeanuri'ra Atxondo'ko base-txean Larrakoetxea kermeldar ospetsuen ama zarra ikustatu ondoren. Gogoratzen zara Txanton adizkide agurgarria?

ALTUNA'TAR JOSU

URIOLEA EUZKADI'N

Munduaren eta gizonen ondamendiak iturri askotatik etorri daitezke eta etorten dira izadi-giroan eta gizonak berak bere asmakizunak bide dirala ekarten dauzanak alde batera itzita.

Sua izaten da batzutan ondamendi-iturri ori eta aspaldion ikusten doguz baso-arlo aundiak kizkalduta. Bakar-etxeak be bai iñoz. Baiña ondamendi au bildurgarriagoa izaten da uri zarrak sua artzen dabenean eta ainbeste gizonen biziak arristu ikaragarrian aurkitzen diranean.

Aizeak be iñoz egiten dauz olako kalteak edo antzekoak.

Naizta Euskalerrian orain-arte ain bildurgarria izan ez, lur-ikarea be izugarria izaten da lurralde batzutan.

* * *

Oraingoan urioleak akarri dauskuz euskaldunoi kalte aundiak. Dagonillaren 26'an izan dogun uriola onek aspaldikoak baiña uretza aundiagoak ekarri dauz, azkenengo uriola aundian izan ziran baiña iru bat neurkin gorago izan dira urak. Ur-jauste ori egunez izan dalako, gitxiago izan dira eroan dauzan norkiak, baiña bat-batean jausi dalako, ezin gaizkatu izan dira arrisku larrian aurkitu izan diran batzuk.

Entzutea danez, kalterik geien izan daben erriak Bilbo, Bermeo ta Araba'ko Audio izan dira, baiña zalantza barik, izango dira beste erriren batzuk be isilleko neke aundiak jasan-bearrean izan diranak.

Euzkadi'tik kanpora, Santander'en eta Burgos'en be bai, baiña ez ainbeste.

* * *

Urioleak egin dauzan kalteak benetan ikaragarriak eta ikusi barik sinistu eziñekoak izan dira: Lantegietan, saltokietan, etxeetan, kale ta enparantzetan, soloetan, bideetan... eta non ez?

Len lanik-eza dala-ta larri-une aundian geure burua ikusten izan ba'dogu, orain larriune ori aundiago ta estuago bihurtuko jaku.

Estualdiko laguntzak ugari izan dira errietan: Janariak, jantziak, ura ta askotariko laguntzak etorri dira albo-errietatik, eta erriak garbitzeko be langilleak ugari... Lenengo estualdia igarotakoan, ikusi egin bearko da.

* * *

Kalte negargarri oneik bardintze-bide arin eta estuak eskatzen dabez.

Lenengo, babes edo seguro-etxeak emon bearko dabe laguntza ori eta oneik zor dabelako dagokien neurrian, baiña arintasuna izango litzake eskertzeko gauzea. Lateraliko agintariak be dirutza aundia aurreratzeko ustean dagozela agertu dabe eta, zalantza barik, Eusko Jaurlaritza be onetan biotz-zabala izan dalako itzaropena ba-dago.

Inguruetak laterriak be oiturazko bideak artuta, laguntzaille izango doguzala uste izan geinke, eta bertoko erritarrak alkar laguntzeko be or daukaguz «Caritas» eta antzeko erakundeak.

Laguntza guzti orreik be ez dira naikoa izango Euzkadi'k izan dauzan kalte guztiak bardintzeko, baiña erri langilleak bere lanaz azken baten bere burua jasoko dau.

Gure lantegietan lenagotik egoan lanabesak eta tramankuluak barritatzeko eginbear aundia eta bear ba'da orain izango da aukerea barrizatze ori aurreratzeko.

Eusko-Jaurlaritzak eta «Caritas»en arduradun nagusi diran gotzaiñak, alkar-laguntzarako bide lez, kalte barik geratu geranoi egun biko irabazia kaltetunentzat emotea eskatzen dauskue. Ez genduke laguntza ori une larri onetan ukatu bear!

OLERKIA

IRRI ERRI URRI ORRI ARRI

EUSKAL

ARRI
ERRI
IRRI
ORRI
URRI

ARRI
ERRI
ORRI

IRRI
URRI

ERRI URRI ORRI IRRI ARRI ERRI URRI ORRI

ERRI
ARRI

URRI
ERRI

ORRI
URRI

IRRI
ORRI

Jasan ditu erriak
arriak

historian zear
bere muiñean,
animaren sorlekuan,
mintzairaren
itur-buruan...

Seme-alaben eskutik etorriko ote zaio eriotza?
Seme-alabek erailko ote dute zatika birrinduta?

Kanpotik ostikoka
maltzurkeriz ari zaizunean,
barruko etsipenak,
barruko gerrak,
barruko anai-arteko etsaipideak
emango ote dizu amaiera,
Erri-Euskera?

ERRI
ORRI
ARRI

Semeak arri,
anaiak arri,
odolak arri.

OROITARRI:

«Emen datza illik
bere barneko gaitzak ilda,
millaka urteetan
eraso guztietan
bizirik
iraun duan Erri».

ARRI
ERRI
ORRI.

ERRI

Euskalerrri
Zaarra

ORRI Zatika, zatika
apika, apika
ARRI arriak, arriak
gaiñera...
Gaillurra

Oroitapena

ARRI estalkia
ERRI beera...
ORRI Erria erdika
ORRI zatika, zatika
ERRI galdua...
ARRI Animarik ez.
ARRI Pirene-mendia,
ERRI Auñakomendia
ORRI gordelekua
ta babes...

Zeltaek
Frankoek
Iberoek
Erromak
Godoek
Moroek
Frantziak
Erderak
Urdiñek
Gorriek

ARRI Erriko sustraiak,
ARRI mokorra gordiña,
ARRI bizirik gaurdaiño
ARRI Euskera...

ARRI ORRI ERRI ARRI

ARRI ...burua jaso naiean.
ARRI Adarrak, ostoak
ARRI izotzak
galduak...

ARRI ERRI ORRI Arra sortu zaio enbor
zaarrari barnean

kanpotik erailtzetik izan ez dutenean.
Barruko arrak
erailko ote du
arbola zaarra?

ARRINDA'tar ANES

Deba'n Epailak 12.1983.
Ministroen Batzarrak, Felipe eta
bere anaideak, Euskeraren aurkako
erabakia artu ondoren.

ARTEZTASUNAREN ARDATZA

ITURRIA

Mundu onetan txarkeria zabal-zabal dabil eta, tamalez, egunerik egunera geituez doala dirudi.

Gauza jakiña da gizonaren barru-barruan jaiotzatik griña txar askoren iturria beti prest dago bere pozoiagaz gizonaren izate guztia lorrinduteko.

Bear-bearrekoa da pozoi txararren iturriari txorrota eta kizketa ipintea gizonak arteztasuna galdu ez dagien.

* * *

BIDEAK

Mundu onetan geroago ta gudarozte geiago ditugu, Jaurlaritzak, milla motatako poliziak etab. etab. gizonak arteztasunean ibili daitezcan baiña, ori ta guzti be txarkeria aurrera, dan danori ez da naikoa gizonak arteztasunaren barruan eutsiteko, orrezaz gainera beste zerbait bear da gizadia bide zuzenean erabili nai ba'dogu eta gauza ori arteztasunaren gilitza edo ardatza da.

* * *

ARDATZA

Ardatz ori billatu bearko dogu, bestela dana alperrezkoa izango da.

Argi-argi dago arteztasunaren ardatza eziera ona dala biotz barru ta kontzientzi ondo ezitakoa.

Ori da geienetan ez daukaguna.

Pedagoji-arazoak aurrerakuntza ikaragarria egin dabela; irakaslari asko ta asko ditugu, baiña askok pedagoji asko jakin arren geien bear dan gauzea ez dabe irakasten: Umeen biotzetan ezite ona barru-barruan josi ezik dana alperriek, gizadia ez da arteztuko.

Erdaldunak esaten daben lez: auntza beti mendiruntz eta gizadia griña txararren bultzakadeagaz beti mendira, beti txarkerira.

* * *

EZIKETEA

Ikusten doguna benetan negargarria da: Asko dakie umeak, askar askarrak datoz baiña geienetan benetako eziketarik baga.

Euskal-errian be eskoletan baita ikastola askotan agiri dira irakasle siñisgeak, kulturaren izenean ta askatasunaren izenean, Jainkoa baztertu dabenak.

Euren eskuetan jausten diran umeak errukarriak benetan; barruko eziketa onik ez artzean ez dago polilizirik ez zigorrik bide onetik eroango dituanik.

* * *

OIÑARRIA

Kristo alde batera itzi dogu eredurik onena Bera izanik.

Jokera txarra benetan artu doguna, eta, au euskal-erri maitean jazotea, ori da guretzat negargarria.

Jakin dagigun bein betiko, noren eskuetan ipinten ditugun gure umeak, euskal-erriko etorkizuna diranak. Jokera txarrari uko egiten ez ba'dautsagu, laster-laster ikusiko dira ondoren negargarriak.

Ordua eldu da gurasoak eta irakasle danak itxartuteko, eta geure umetxoan ezite onaz arduratze-ko!!!

*Txoritxu polit alai!
biurtu gurera!
Udabarri eldu da,
ba-doa aurrera*

*Biotz gogor gizonak
ilten zaituela?
Esan leiteke egiz
biotz ez dabela.*

*Zuen egara polit
zan zoragarria,
zuen abesti bigun
guztiz pozgarria.*

*Nire gogoan daukat
nire gaztedia,
pagopean jarririk
zueri begira.*

*Bai ta egun berotan,
iturburuetan,
txukun edaten zuek
egarri kentzean.*

*Tamal da izadia
txoritxu bagarik,
bizitasunik ez da
dana dago illik.*

*Txoritxu maitagarri!
ikasi bidea!
Euskal-erri gogotu
emen zure etxea.*

*Zuen antxiñakoak
emen abitxuak,
ona etorten ziran
alaituz gureak.*

*Izadi edergarri!
txori kantariak!
Ostera etortean,
mendik alaituak!*

*Zer dabilte gizonak
dana kutsututen?
Euskal izadiari
antz ona kenduten?*

*Beste euskal-erri bat
ikusit genduan,
ostera biur daiten,
gurari barruan.*

GALLASTEGIK

ZER'en urrilleko zenbaki au atzeratu egin jaku, irar-kolako arazoakaitik eta urrengo zenbakiak be atzeratuta agertuko dira, barru lingo senera biurtu arte. Atzerakuntza onen parkamena eskatzen dautsegu gure irakurleai. Eskerrik asko.

IDAZKOLAKOAK

PINOCHET

CHILE'N ZER?

Nicaragua, Guatemala ta Salvador iraulketarako gudetan dabiltz eta zapaltzaille, agintari gudalburu ta lur-jabeak txiroen aurka dabiltzala-ta, sarritan arduratzen gara.

Baiña gitxitan, edo iñoz ez, billatzen doguz Chile'ko Pinochet'eri buruz jakingarriak.

Gaia jakingarria dalakoan, an zer jazoten dan esatera gatoz gaur.

* * *

LATERRI BATUAK

Lengo urteko iraillean, oraindiño urtebete ez dala, Ipar-Ameriketako Laterri Alkartuak Erri-Ordezkarien batzarrean Chile'ri izkilluak saltzeko legea ezereztu egin eben, Chile'k giza-eskubideetan aurrerapen baliotsuak egin ebazala diñoan argibide bat Laterri-Buruak Batzar Nagusiari emon arte.

Ordutik ona eztabaida aundiak izan dira dira Ego-Ameriketako lurralde estu-luze onen inguruan.

Agintarien adiskideak giza-eskubideetan aurrerapen aundiak egin dirala diño eta arerioen esanak dirala orren aurka doazenak.

Oraintsu Aberri Batuetako Eskubide-Batzordeak zuzendaria bialdu eban ara eta baiña biotz minduaz itzi bear izan eban bere zeregiña.

* * *

ZER JAZOTEN DA?

Ego-Ameriketako erririk geinetan euneko ogei ta bost biztanle dira erdi-maillakoak. Chile'en ostera, bere auzokoak ez daukezan olako ezbardintasuna batzuk daukaz: Aberatsak osotzen daben gorengo maillea, ekonomi-arauz agintari diranen giza-maillea eta erdia baiño geiago dan eta txirotasun sakonean bizi dan langilleen maillea.

Chile'ko ekonomia nitregatz, iokunde, eun-gai oialki-gai, porland, ikatz eta lugintza inguruan dabil. Dirutza, ostera, baltzu batzuen alkarte aundi baten eskuan dago, eunetik 50 agintari, zuzendari diranak eta guztietatik onura ta irabazki erdiak ateraten dabezenak.

* * *

KONDAIRA

1818'an askatu zan Chile España'ren buztarripetik, baiña araukoakaz 1881'ko ituna izenpetu arte, burrukan jarraitu eben.

Emeretzigarren gizaldian Peru, Bolivia ta España'gaz gudaketan ebillan. Alan be, demokrazian bizi zala esan zeitekean.

1825'ean, Erkal edo errepublikeagaz batera oraingo erakundea sortu eben, Batzar Nagusia, Epaiketa-Bideak eta Buruzagia aukeratzeko eskubidedun erria geratzen zala.

150 urtetan, 1973'ra arte Chile'k erri-agintaritzan izan eban eta barruko bakean bizi zan.

* * *

ORAINTSU

Chile'ren oraingo politika-kondaireak erri-barruko buru-auste nabarmena agertzen dau: Politika-talde asko.

1958'an Liberal-Alderdiko Taldearen Buru-Gai zan Jorge Alesandri azpiratu eben Eduardo Frei'ren Kristiñau-Demokrata alderdiak eta Salvador Allende'ren Erri-Ekintza Alderdiak.

1964 urtean euneko 56 erri-autarkiz Frei'k irabazi eutson Allende'ri. Frei au erdiko aurrera-zale zan eta Chile'rentzat benetako demokrazi aurrerakoa lortzeko alegindu zan, baiña arazo larregi pillatu jakon: Janari guztiz gitxi, ekonomi bideak ankaz gora eta erria ernegatuta.

* * *

ORAIN

1973'ko iraillaren 11'n Augusto Pinochet'ek laterriko ertzaiñakin, indar eta izkilluz tresnaturik, gobernuaren aurka oldarketa gogor bat bideratu eban, Laterri-Buruaren La Moneda Jauregia dunbadak jaurtiz eta gobernuko babeskiak eskuratu ebazan.

* * *

Allende ilda agertu zan.

Salvador Allende Chile'ko Buruzagi ezketarra, Pinochet gudalburuak zuzenduriko indarrak azpiratu eben eta gudaldi gogorrean il zan. Eriotza orrek laterri-artean gorabera aundiak sortu ebazan eta giro au geroago ta sendoago dagoala dirudi. Munduko laterri asko dira Chile'rentzat erri-agintaritzan eskatzen dabenak eta orretarako kale-agerpenak egiten dabezan alderdi politikuak.

LETONA'K

BILDOTSAK

(JARRAIPENA)

Geroz, ondoren, aro barria jatorran. Eiztari-giroak ateak zabaldu jeutsezan artzai bizi-bideari. Lagun arterako lege obean zuan. Arrika ta makillaka txori ta pisti ondoren ibiltea baiño, artzai kantari izatea ez al dok erosoago, alaiago ta bikaiñago?

Alaitasunak ta bizitza egokiagoak izkuntza be bildots narruz jantzi jua. Euskera, aurrera, joian obetzen. Geroago ta pentsamentu sakonagoak jabiltzekak euskal bizitz alorretan. Len erbiak, ta orain, erbi ta bildotzak jabiltzekak saltari eguzki printzetan. Len, mendiak illun; orain, artalde zuriakaz irripar zuritan jagozek, egunez, mendi-egalak. Gabaz, txabola zarretan ardi-ama ta bildots umeak maitasun eztitan gozorik. Berez jatok bizitza barria, izkuntz legea aberastuten. Lengo lan ezaupideei jakituri barria ezarten jeutsen.

Artxoen jaiotzak len barriak... bildotsa lepoan artuta jatok artzaiña, arrats-beran, mendi tontoretetik ardi-txabolara. Gero, esne barria, ugari baldak artu alan, bizitz mueta barriak sortzen. A zuan langintza bizigarria! Etxeko andre maratza ta senar artzain trebea, alkarri lagunduz, gaztai gozoak egiten. Giro barri artan jabiltzekak izkuntzaren atal barriak sortzen, euskeraren arloa zabaltzen. Mendiak, arruak, ardiak, jaiotzak, bildotsak ederrak diran ezkeroz, euskera be, era be-

rean, edertzen joian. Eiztari usaiña galdu barik, artzain giroa artujuan. Usaiña ta gozamina, biak

eder, ta gure berbetearen izakerea arranoaren antzera, egaz mintzatzen ta edertzen.

PAULIN



Urrillaren 19'an Landajuela'tar Andoni gure landike ta adiskiaren urteurrena ospatu gunduan.

G. B.

OLERTI-EGUNA (1983)

Aspalditik asita urtero ospatu izan dogu Olerti-Eguna aurten be eudiko dogu, Jainkoa lagun.

Aurretiaz iragarten jatzua olerkari ta bertsolari guztioi: Bizkortu zaitere zuen lanak bialtzeko. Bartzuk illabeteak dirala artuta daukaguz.

GAIK betikoak izango dira:

I) **Lirika-sailla**, edozein gai ta neurritz osoturiko lan bat.

II) **Poema-sailla**, euskal oiturai buruzko poema obeto ikusia dala.

III) **Bertsolarien sailla**, sei bat bertso-muin bereziz biribildua.

Bial lanak alik ariñen, urril onen azkenerako bai beintzat.

Zuzenbidea: A. Onaindia, Zornotza-Larrea. Ba-dakizue zelan.

Egitaraua: —Eguna, azillaren 20'an, igandez, Kristo Eregeren egunean. Ordurako emen izango dogu «Olerti» aldizkaria be, igaz emen sarituak izan ziran olerkiak eta beste askogaz jatzia.

—Ordua: 11 1/2'etan meza abestua, ondoren sari-banatzea, itzaldiak, alkar-izketa ta alkar bazkaria.

OARRA: Egun orretan Zeauri'ko apaiz izan zan G. Manterola omenduko dogu, beste urte batzutan beste batzukaz egin dogunez.

A. ONAINDIA

URKIZA ABADEA

Goi maitasuna zabaldu dagi-
gun munduan eta orduan mundu
barri ta ederrago bat egingo dogu.

Gizon goragarri asko ta asko
izan dira munduan, edestian zear,
elburu aundi baten billa arrigarri-
ro jokatu dabenak, zaletasun ba-
tek eraginda izan bere:
Aberastasun-zaletasunak, jakin-
tzaren egarriak, edo agintaritzaren
egarriak edo itxaropenak, etb...
bultzaturik eldu dira aundi izate-
raio.

Guraririk aundiena zaletasunik
indartsuena maitetasuna da.

Idazteunak diñoenez, norbera-
ren bizitza iñogaitik, eta emengo
ordain barik emotea da matasuna.

Olakoen artean aundiena Kris-
to izan da, uts utsean, ondo nai
utsez, gizonaganako maitetasunez
eriotza garratzean bizia emon
ebalako.

Jarraille ugariak izan ditu giza-
diaren barruan, asko ezagunak,
baiña ba-leikete geienak ez ezagu-
nak izatea.

* * *

Onetariko bat aitatu nai neuke
gaur egun: Joan dan gizaldiaren
erdi inguruan (1854), beste erri as-
kotara lez, Bilbora be eldu zan
BEAZUN MIN-KOLERA deitua
dan gaixotasuna.

Egun baltzak areik benetan!

Dana zan isiltasuna, dana ne-
gar ta sotiña!

Gaisotasun arek artzen ebaza-
nak, pozoi lurriñagaz beterik,
mara-mara, ilten ziran. Illen bat
bako etxerik ez egoan Bilbon egun
larri areitan.

Illak gauzez obiratuten ziran,
ezelango illeta ta laguntalderik ba-
ga, gaisoak ikustatzea guztiz de-
bakatuta egoan, ain zuzen bere
gaisotasun ori oso erantsikorra
zalako.

Beste alde gaixotasun ori osatu-
ko eban osaki ez egoan ondiño,
(Geroago aurkitu eben osagilleak
osakai ori).

* * *

Larritasun aretan, Bilboko erri
guztia otoika egoan Errukizko
Andra Mariari ta Erroke deunari,
Gaixotasun madarikatu a aldendu
zeitela emendik eskatuaz eta, az-
kenez, orrelaxe jaso zan.

Esker onez Errukizko Andra
Maria ta Erroke deunagako eras-
pena asko geitu zan Bilbo erian.

Gaixotasun ori joan zanerako
bitartean, zer?

* * *

Gizon bat egoan debekatzeko
guztiai ta bildurrari uko egiñik,
gau ta egun, etxerik etxe, bai gor-
putzean bai ta gogoetan laguntzen
ebillena, gogo artzaintzak eta gi-
zonakanako Kristoren maitasu-
nak bultzatuta, San Anton parro-
kiko erretore URKIZA jauna izan
zan gizon arrigarri ori.

Euskalduna ta adoretsua bene-
tan.

Bere gaixoakanako lanean eten
baga ebillela gaisotasun baltzak
gogor artu eban eta min ikaraga-
rriakaz makaldurik alaitsu ta zo-
riontsu il zan.

Ausartia benetan abade ori eta
Jaunaren eta gizadiaren aurrean
goragarria.

Erriak askotan, batez be, siñiste
epelduna ba da, abaden akatsak
farra-farra aotan erabilten dauz,
abadeen gauza onik izentatu ba-
rik, orregaitik nik gaur gogoratu
ta goratu dot abade miragarri
onen edesti apur bat, bera goratu
ta erriari jarraipide eder bat ez-
keintzearren.

Len esan dogu, gurari aundi ba-
tek gizonak aundi egiten dauzala
eta, batez be, gurari ori, zaletasun
ori, goi maitasuna ba da aundita-
sun aundienera eroaten dauz gizo-
nak, Esate baterako Urkiza jauna.

*Maitasun sua su gorria
dana kizkalduz biotzean
ipinte barru goi bidean
Maitasunaren indar orrek
ez dau eziñik ezelan be
goi mallaraiño eldutean
neke-arazon osakia
egizko baken iturria
poz dago maitetasunean
sartu biotzen barrenean
goi maitasuna antxe josi
garraille gero azkenean.
GALLASTEGI'TAR KAULDI*

ABADIÑO'N

Ez dozue iñoz entzun Durango ibarreko Abadiño'n berarizko, dantza bat egiten dabela? «Banango» da onen izena.

Baiña gogoratu dagigun Abadiño erriaren kondairea.

Antza danez, aldi baten, urte batzutan zear, Naparra'ko Erregeagaz bat eginda egon ei zan, beste Bizkai Jaunerrria Haro'ko jaunagaz batuta egoan bitartean.

Orain be Abadiño nortasun indartsuaz ikusten dogu.

Bertako jentea itzaltasundun eta langille burutsua da. Orain eurak jabe dirala, langilleak alkargo-lantegia dauke eta gaiñera solo ta abereen jabe diran ezkerro, dirua be ez jake peituko.

* * *

Aitatu dogun «Banango» dantzea, batzarrak egiteko Gerediaga'ko Salbadorearen baseleiza-ondoan bateratuta egozenen artean egiten zan.

Dantza au ez zan Abadiño'n bakarrik egiten, Berriz'en, Garrai'n, Izurtza'n, Mañari'n eta olako erritxuetan be egiten zan.

Txistu-soiñuaz dantzatzen diran eta gureganaiño eldu diran dantzak bederatzi oneik dira: Agintariena, Zortziñango edo Zortzikoa, Ezpata-Joko Nagusia, Launangoa edo Makil-Jokoa, Txontxongilloa.

Dantza guzti oneik auresku edo sokadantza betegaz amaituten ziran beti.

Zortzi dantzari-taldeak moltzo bat egiten eben.

* * *

Txaleko jipoimotz bat erabilten eben dantzarako eta ganean, «dantzarien lorie»

Abadiño'n egiten zan era bereziaz azalduko dogu.

Jorraillaren 28'an Prudentzio deunaren eguna zan eta urrengo domekan udaletxeko atartera deituten jaken egin gura eben guztiai.

Alkateak, ikurrindun eta txistulariak eta eretxi-emoilleak lagun zirala, aukerea egiten eban, Banango zarra guztiak zelan dantzatzen eben ikusita. Aukerapen onetara Gaztelua, Mendiola, Muntzaraz, Zelbate, Traiña eta Gerediaga, baserrietako taldeak etorten ziran.

Aukerea eginda gero, Gaztañobi'n ekiñaldi bat eukiten eben eta Santo Domingo egunaren 12'etarako gertatzen ziran dantzan egiteko. Egun onetan be dantzari guztien ekiñaldia egiten zan, dantza-ots eta tresnakaz, baiña eguneroko lez, ez zuriz, jantzita.

* * *

Dantzariak dantzan egiten eben egunak 12'an, Santo Domin-

go, gertatzeko eta 15'an, Torkaz eguna, benetan egiteko izaten ziran: Udaletxetik urteten eben, Udal-Batzagaz batera Mezea entzutera.

Meza-ostean, makoa edo arkuia egiten eben eta Agintariena, dantzatzen asten ziran beste dantzak egiten arratsaldean jarraitzeko.

Gero, igandean, dantzari bakoitxa, mezea entzunda, goizean barriro dantzetara joaten zan.

Erriko tabernan bazkaria amaitua, etxerik etxe dantzea egiteko deia egiten eutseen, euren eralgiak bardintzeko «almonada batzeko».

Gero barriro enparantzara dantzak jarraitzeko eta dana «soka-dantzagaz» amaitzeko.

* * *

Antxiñako dantzariak euren burura jatorkez auxe diño: Andoni Deunaren egunean Urkiola'n agertaldi berau egiten zala.

Orregaitik, ZER gure aldizkari onen bidez Abadiño'n egiten daben erti, erri-jakintza edo folklorea goraldu egiten dogu eta igarotako aldietan erri-oitura aberats oneik egiten ziran antzera, zeatz eta zintzoro jarraitu dagiezan adoretzen eta indartzen doguz.

EGILUZE'k

ANDONI AMUTXATEGI, OLERKARI

Miin txarrak diñoenez, Elantxobe erri bitxia ei da, urez, lurrez eta gizonez.

«Bitxi» berbeak alan be iru esan-nai beintzat badaukaz: 1) metalezko domiña bat, paparrean eder-gaillutzat eroaten dana; 2) nabarmena, oi-ezlakoa, bestek ez lakoa, bere legezkoa, eta 3) dotorea, poxpoliña, sona...

Iru esan-nai oneitarik zein ete jatorko ondoen gure itxasaldeko erritxoari? Irurak batera ez ete?

Erriak oiñetan beti txipli-txaplaka daukon Kantauri zabala bitxia da, ederra, naiz asarrekor dala, naiz bare-bare dagoala; erriak oiñarrizat daukon lur-zati aldapatsua, bitxia dogu, noiz laban egingo ei dago eguraldi euritsuetan batez be, baiña or Ogoño begirale bikain.

Gizonez bitxia dogu, leen eta orain; ez itxastar legez, euskal idazle legez so egiñik, ainbat ditugu bertokoak: Gorgonio Renteria, Imanol Arriandiaga, Jose Intxusagarri, Andoni Amutxategi, Andima Ibiñagabeitia...— euskal arloan trebe izan doguzanak.

Andoni Elantxobe'n jaio zan 1913-ko garillaren 24'an. Abade izan nairik, ortarako ikastaroak, lenengo lau urteak, Arratia'ko Artea'n (Gaztelu-Elexabeitia'n) egin zituan; beste zortzirak Gasteiz'en, lenengo biak Seminario Zarrean eta beste seirak Barrian.

Apaiztegi Barria zabaldukeran, olerki luzetxo bat ozen esan edo deklamatu eban Andoni'k ainbat gotzain, abade ta erritarren aurean; olerkia Jakakortajarena'k egiña zan, baiña berak ederto otsegiña.

Egun gomutaria! Eta orduko zerbait dardaraka dabilkio oranindik gure elentxobetarrari: Orduko

Aita Santu Pio XI'ren Nuntzio-Ordezkarri zan Tedeschini jaunak esan ebazan itzak: «Euskera ez da galdu bear, Españaren eta munduaren goraltzarako». «Entzun ba'zeuntson entzun —diño berak—, ze gogo berroz eta kementsu esan ebazan itz orreik!»

Gudaketak nun aurkitu eban? Elantxobe'n bertan. Bere ikaskideak abade ziran, lau izan ezik. Gudaritza zala-ta atzeratu ziran bostok Frantzia'ko Akize edo Dax'en egin ziran abade.

Euskadi'ko Jaurlearitzaren baimenez eta erbestaturik egoan Gasteiz'ko Gotzain Mujika Urrestarazu'tar Mateo agurgarriaren eskabidez eta eskubidez eldu ziran ara, eta andik illabetera, atzera biurtu ziran Bizkaira, Eusko-Gudarosteko kapillautasuna eusko gudariekin betetera.

Pazko-Berbizkunde osteko eguenean eldu zan Andoni Bergara aurrean dagon «Basalgo» deritxon mendira. Ni an nengoan orduko; antxe ezagutu genduan alkar, «Kirikiño» batalloian alkarregaz eta Santoña'ko espetxean be alkarregaz egonik.

Nun egin dau arima-zaintza? Lenengo Araba'ko Antoñana'n sei urte, ango inguruetako abade-buru; gero Bilbo'n ogei urte, azken amazortzi urteotan Sukarrieta'n daukugu, ango eliz-arazoetan buru-bellarri sarturik eta aske-unetan or-emengo aldizkarietan euskerazko lantxoak idatzirik.

Txistua joten dau. Musikarako griña biziz bizi da, euskal musikarako batez be. Berezkoak edo-ta bizi lekuak, Sukarrieta'k, eraginda, eder-zalea dogu osoan.

Euskal idazle

Asko ezta be, Andoni'k beti ekin dautso euskeraz idazteari, amaren magalean eta ikastaroetan ikasi eban izkera arin, zorrotz, txairoan.

Seminarista zala asi zan idazten. Beronek diñostanez, bere urteko ikaskideen artean «Mens Nostra» eritzen aldizkaritxo bat ateraten eben; eta «bertantxe idazten neban zertxobait euskera utsean», diño.

Gerotik aldizkari oneitan argitaratu ditu bere lanak: «Txistulari», «Karmel» (itz lauz ta poesiz), «Agur» eta «Zer»-en, era biera, ots, prosaz eta bertsoz.

Euskal idazleok oitura dogunez, izen-goitiz firmatu ditu bere lanak, au da, «Lertibe» erabilli dau idazlanak izenpetzean.

Bere gaiak, interesgarriak dira geienbat: jazorkuak, artu-emonak, gizarteari buruzkoak; sakonak izan arren, arin ta argi azalduta.

Olerkari

Itz lauz artikulu politak biribilduagaitik, atsegiñago jakoz Andoni'ri olerki-lan laburretan jaukal esitzen dauskuzan pentsamentu samurrak. Gazteiz'en ikasle zanetik dakar zaletasun ori, berezkoa esan bearko, aizeak berezkoa, dauanez orriak dardaratzea.

Ba-dira olerkiak idaztea errezago dala diñoenak. Ez adierazo ariñegi olako baiespenak. Bietarako, bai prosarako eta bai poesiarako, goi-kemena bear. Karta bat idazteko, baiña, ez dozu bearko olerki bat ontzeko beste argi, kemen eta indar. Suminjaso edo aroaldia da olerkia, arimearena noski.

Sumin-aldi au, barriz, era askotara sortzen, poeta naiz eder-senaren jabe danaren kautan. Irakurte batek, ikuste batek, alkar-izketa batek ekarri oi dausku ori, gogoaren indar, sumin, eroaldi ori. Ona lengoan neuri jazoa. Zaar ta gazte, bost joan giñan Gorbea'ra, Murua'tik, Kanteretatik, Azero'tik Aldamin-azpira. Bi perretxiku billa joan ziran mendian gora; beste irurok autuan, bape estutu barik. Pagadi ederrak, eta unetik unera enbor zaar batzuk, azken baltzean, lerrera eratsita; nire lagun olerkaria ta ni olako baten aurrean miretsirik gelditu giñan, poesi-sumiñak jota lez; irugarrenak, ostera, zoratuta gengozala esan euskun. Eta ariñari emon eutsan.

Gorago, pagadi gaiñean, or sekulako gorosti gerri-lodi lerdanak; osto baltz ugarik jantziak, eguzkiten dizdiz. Urreratu, ta zer dakusgu? Orriak batzuk arantzal dabez eta beste batzuk ez; mirakulu ori barrendu nairik, luzaro egon gintzazan bertan. Zerbait gorago, beste gorosti erdi-igarra; osto legorrez jantzia, txorta batzuk eze ta berde ditula. Zelan ori? Ingurua azal barik agiri dau, baiña atzekaldean dau

onako muskil berde bat, enbor igarrari deutsola gora doana. Eta guk: «Or gaurko Euskalerrriaren irudia: gerria igartuz, baiña bizi-naia mokor gaiñez.

Bazkal-ondoan Atxuri'tantza jatsi gara bostok. Atxex aitz ibiltaldi arriskutsua. Pagadiak, oraingo lerd baltzak, ardi ta zaldiak... Eta lenpernak... Eta txoriak, bela, erroi ta eskillaso artean, berein kolorezko pitiñak; bat ni lilluraz jarri ninduen, leizar zubil sendo lodi baten orri artean, txio-txio leun berezitan kantari. Mendi-tontor bakarretako kantari ziur asko, bee-aldeetan ez bait da olako txio ezirik entzuten.

Pago-mukur zaarra, goresti gerri-igar berdetu naia, ta txori bakanaren txio-txio leuna, ez al dira iru poesi-gai sekulako? Guztiok, baiña, ez dogu sentitzen inguruko gauzen adertasuna. Eta, naiz izadiko ederra, naiz barne norberak sorturikoaren muiñaz gozatzen danari «zoro» deitzen dautsagu. Bai, indarra, zoro-aldia bear ederraren ezta xurgatzeko.

Lertibe'k izan ditu olako zoroaldiak. Or lekuko bere bertso, kopia ta olerki beroak. Aitzol il ebenean, jazoera izugarri batek joa aurkitu zan goi-argitua, eta luma arturik, «Aitzol jaunaren omenez» deritxona, lau aapaldi luzekoa, osotu euskun, letra ta eresi, andik egun batzuetara Bilbo'ko «Euskadi» egunkarian agertu zana. Irakur bere leenengo estrofea:

«Irakurri izan dot izparringietan
ta abertzale diranen arpegietan,
erail dabela,
ez kentzearren eukan sakela,
erail dabela
lapur bat izan balitz bezela
«Aitzol» trebia,
maite ebalako jaiotz-erria,
maite ebalako jaiotz-erria».

Olantxe daukaz dozenaka landuak, ikusi, entzun eta esan dautsoezan gaiakaz. Guda ostean or ibilli zan alderrai; ama etxean semearen zain. Onela adierazten semearen erri-miña ta amaren nekea, «Erri-miñez» deritxonean.

«Erbestean ni negarrez,
amatxo neukan didarrez:
Luzaroan zagoz
erritik aparte;
seme maite, etorri zaite
ama bizi dan arte».

Urte batzuk igarota erbestean,
udabarri goiz batean
agertu nintzan etxean.
«Ai, seme laztana!,
elduko ziñana,
ziur ekian amatxok
etorriko ziñana».

AITA ONAINDIA

ZEILAN

Gugandik oso urruti, ludiaren beste aldean, dago Zeilan deritzan ugarte. Gaur, izenez aldatuta, Sri Lanka estaen jako.

Nagusi asko ezagutu dauz: portugalarrak lendabizi, olandarrak gero, eta azkenean inglanderritarak. 1948'an artu eban askatasun osoa, bigarren ludi-guda amaitu ostean.

Alboan daukan India'ren ondoan, txikia ematan dau, baiñan ez da ain txikia, 65.610 kilometro laukoi badauz-ta. Olanda, Belxika eta Luxenburg batera baiño aundiagoa.

Inditar Itxaso Nagusiak zeoro inguratzen daun lurralde ortan, 15 milloi bizi dira, baiña ez danak enda edo raza berekoak: % 80, bertan-bertako Singaldarrak dira ba; eta % 20, Indi'tik aspaldi batean etorritako Tamildarrak. Auek erlijioz «indu» dira eta aiek budatarrak.

Lurralde, ez da abertsia Sri Lanka: Nekazaritza besterik ez dau, eta nekazaritza ere, atzeratua oso, esku-lan utsez aurrera aterea. Tea-belarra eta kanelaren antzeko jaki-gozagarriak dira bertako emaitzarik garrantzitsuenak. Sri Lanka'ko sendien erdiek ez dabe illeko 15 dolar baiño geiago irabazten; ola bateko langille batek berriz, eguneko dolar bat. Ala-tagutziz, jende ikasia dira sri lankatarrak; % 87'k irakurtzen bait dakie. Osasun-arloan ere, ugariak eta onak dira ango sendagilleak.

* * *

Sri Lanka'k «zorionaren egoitza» edo egon-tokia esan nai omen dau. Baiña ludian ez da zorion osozko lurrik-eta, Sri Lanka'tik ere urrun dabil zoriona.

1977'a arte emakume bat izan dau agintari: Banderenaik eandrea. Ez zan bera komunista, baiña komunisten eskuetan laga eban laterria (estadua), eta komunistek oso-osoan ondatu eben lurralde guzia eta ezbear gorrira eraman bertako jendea.

Arritzekoa da komunistek errialde bat ondatzeko daben yotasuna. Ipar Amerika'ko Laterri Batuak baiño aberatsagoa da Errepublika Sozialist Sobietarren Allkarte; askoz aberatsagoa; baiña, ¡to!, ondo era ezberdiñean bizi da Laterri Batuetako jendea! Edo Suizi'ko edo Sueziko edo Luxenburge'ko jendea!

1977'an Jayebardene jaunak lendakaritza artu ebanean eta demokrazia edo erkala ezarri ebanean, bazirudian zorionerako bidean sartu zala Sri Lanka, aurre-rapen aundiak egin bait ziran urte gutxitan, baiña aurtengo uztailean arazo lodia sortu yako Jayebardene Lendakariari, eta ez dirudi arazo ori askatzeko bide egokira jo dabenik.

Uztaillaren 13'an tamil «izuketa-zale» edo «terrorista» batzuek 13 gudari singaldar erail ebezan. Bigaramonean sutan egozan Kolombo uri nagusian tamildarren denda, etxe, eta beribil guztiak. 150 izan ziran illak eta etxerik gabe gelditu ziranak, 35.000. Kolombo'ko espetxean bertan singaldar expetseratuek, bertan baiturik zegoan 15 tamil, makilka erail ebazan.

Ez da au Sri Lanka'n lendabiziko matxinada, eta ez ta azkenekoa izango. Len ere oso maiz alkar jo dabe, an, bi enda aietako jendeak. Tamildarrek burujabetza eskatzen dabe askok, eta beste askok aska-

tasun osoa. Gauzak larriago eta zakarrago ipintzeko bada tamildarren artean ETA'ren antzeko sasi-profeten talde bat ere.

Zer egin an? Ez beintzat indarkeria erabili; baiña ori, indar beltza, erabiliko daula agindu dau Jayebardene lendakariak; indarkeri utsak ordea ez dau pakerik ekartzen. Indarkeri utsak indarkeria sortzen dau.

Ikasi begi Gonzalez'tar Felipe'k, eta ez begisku esan 10 milloi boto edo autarki berekin dauzala. Jayebardene'k ere berekin dau Sri Lanka guzia ia-ia. Parlamentuan 6 diputadutik 5 bereak dauz, baiña ba dau pakerik lortuko ez ote daunaren bildurra.

Erri batean bi enda bizitza ixkamillaren azia da beti. Baiña Sri Lanka'n bi enda bizi dira eta ikasi barko dabe alkarrekin bizitzen.

Ori bera gertatzen yaku Euzkadi'n. Baiña emen atzerritik etorriak ez dira % 20 bakarrik. ¡% 50 dira! Orregaitik, gure eginkizunik aundiena atzerritiko lagun urko oiek, lendabizi euskotar eta gero, al ba dogu, euskaldun agitea da. Indarkeririk gabe! Iñor iraindu, edo asarretu, edo zauritu gabe. Maitasunik aundienean. Ez dau Aberria maite Aberriara etorri jakuzan atzerritar oiek egitez edo itzez —maketo, koreano, belarri-motz, deika— gutxiesten dabezanak.

Euzkadi aundi bat egin gura ba'dogu, danok agin bear dogu: oiek eta guk. Maitasunik aundienarekin, —Aberriaganako maitasunik aundienarekin euskotartu daiguzan jende oiek danak.

LATIEGI'tar Bixente

KARLATARREN II

GUDEA (VII)

Karlatarren-artean Amorebieta' ko Ytunbena on Jose Liceto de Urki-zu aurkezten jatu. Zetarako edo zer izan zan bere eginkizuna?... Liberal-Baltzen Serrano Gudalburua'gaz berba egin, onen egoera, asmo-gogoa ta elburuak jakiteko. Serrano'k esan eutson España'ko Egoaldean errepublikanumatxinadaren bat jaso ete leitekean bildurrez egoala, ta orregaitik gudalozte osoa gertu eukiteko beragaz emengo burruka arazoe-kin naita naiez amaitu gura ebala lenbaitlen. Orozko'ra joan zan Urkizu iru eguneko bake unea emoten ebela esatera. Bidean aurkitu eban On Leon de Iriarte. Au asarraturik egoan Aldundegi'ko Zuzendaria gaz. Zegaitik? Beragan ez eukolako uste onik. Eta zelan eukiko eban ba isil-isillik Aldundegi'ren erabagia ez onartu ezker? Esan eutsoen Gipuzkoan Rekondo ta Amelibia aldendu egin zireala. Naparran Carasa be bai.

Beste España'ko alderdietan nekez egoan gudari talderik Karlis-ten alde. Egiten eban oarpen, zio, arrazoi babarra auxe izaten zan: Gustiz egoki zala On Karlos'eri itaundutea ta onen eritxia jakin erabagi ain ardurazkoa artu baiño lenago.

Erantzuten eutsoen: Nora joango gara ez ba'dakigu On Karlos non dagon? Gaiñera, Errege-Gudalategia egoera estu onetan isildu egiten zala.

Alan da gustiz be Yriarte buru gogorraz bere eritxian.

Zelango asmoak erabillezan buruan, dana dala, ardura barik, guztia areri entzutean ez eukala gogo eragille ezeroskorik artuteko jakindu ziran oso-osoz.

Augaitik zuzendariak guda buruzagiak anatur esan eutsen or-

duan bertan egozanak baita be ezegozanak gudea jarraitu gura ba-eben, esan egiela argi ta zintazunez, Aldundegiak bere zeregiña amaitu ebalako ezereztu bear izan arren, bera guda-zelaian geratuko zala borondantezko azken gudaria aldenduten zan arte.

Orduan be isildu egin zan Yriarte, ta au ikusirik zuzendariak agertu egiala idazte-agirian bere asmoa, baiña ori be ez eban nai, koloka, eztabaidaz bere asmorik ez agertu, zalantzan dagoan gizon antzera.

Aldundegi'ko zuzendariak egiztatu egiala bere asmoa eskatu eutson. Orozko'ko bigarren batzarra olantxe amaitu zan, baiña etzan agertu Yriarte'ren eritxirik.

Batzar onen agiriak lengoak baiño argitasun gitxiago eukan ta zeaztasun orreik isillean itziten dauz. Batzar bietan gudea amaitu bear zala argi ta garbi esaten zan.

Geroago ikusiko gogunez, Leon de Yriarte'k maltzurkeriz ziar- duan, eta bere andizale, bekaizke-ri edo eztakigu zegaitik zuzenda-riaren aurka ebillen beti.

Askenez, Yriarte beronek ta Marques de Valde-Espina'k gudea amaitu, nakea eskatu ta itunbena egin bear zala ontzat artu eben. Gero irizpide ta azterketa asko agertu be agertu ta zabaldu ziran.

Alkargo-bakearen jatorrizko utsune izan zala, On Karlos Erregea aurrean egon barik egitea esaten eben.

Baiña zintzotasunaren bidean ibilli gura ba-dogu, irizpide ori etzala onerakoa esan bear be.

Zelan esan leiteke Don Karlos aldendu egin zala bere billa ainbeste alegin eginda gero, bera ezin aurkitu ta? Bizkaiko Aldundegia- ren aurka agiraka egozanak, ja-

kin bear eben onen erantzukizun itzal bildurgarria.

Probintzia zaindu, ta mille oldezko gudarien bizitzea gordeteko bera bakarrik, beste Karlis-ten la- guntza barik, liberal baltz arerioz inguratuta alde guztietan, orre- lango egoeran ez eukon beste bi- derik gudea amaitu ta baldintza- rik onenakaz bakea eskatzea bai- ño.

Bestelan zer esan leikien mar- marzaleak, gudea jarraitzea onartuz, bertan bera itxita ainbes- te borondantezko gudariak, eurak Aldundegi'ko gizonek biaramo- nean Frantzira iges joan ba'litza- z?

Orixe egin eben Leon Yriarte'k te bere lagunak, bake-une edo gudu-arte apurtuta, batalloi bi- gaz abiatu ziranean gudaketak jarraitzeko, eta Gernika'ra eldu- rik izkilluak jaurti, gudariak ber- tan beera itxi, ta eurak bildur lo- tsagarritz arerioari eskatu mese- dez itxi egioela Prantzi alderuntz egiten.

Aldundegi'ko gizonek orrelan- go jokabidea artu ba'legie, nore- gan jausiko zan erabagi zoro orrek ekarriko zituan kalte, zori- txar ta onadamenen erantzukizu- na?

Bein eta betiko esan bear da danok jakin dagien: 1872'ko biga- rren Karlis-ten gudea zuzendu ebe- nak, ondo, zintzoro ta zuzen joka- tu eben.

Rivadeneira'k bere Errege kris- tiñauen Idaztitan diñoana begi-au- rrean euki ta jarraitu eben: «Arrazoiak eskatzen dauanean aurrerantz ez joatea koldar argal- kerik dan antzera, olantxe zorakeri auzarkeria izaten da atzerantz ez egitea adimen berak adierazi edo esaten deuskunean».

LETONA'k

ESKU-IDAZKIAK

XIV GORAPEN-ABESTIA

*Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
egiarako irakasle izan zintzakidazalako.*

*Zeure misterio miragarriak ezaguerazo zeustazan,
gizon makalarentzat dozun ontasuna,
oraindiño biotz gaiztoa dabeneztat dozun erruki pilla.*

²³ *Nor da jainkoen artean Zeu lakorik, Jauna?;
nor da Zeu lako egiazirik?*

Nor urtengo da zuzendun zure aurrean, auzian?

²⁹ *Ez dago zure auziratzeari erantzun aal dagion
bat bera be;
aintza bakotxa putz bat da,
ezin daikeo iñok zure sumiñari gogorrik egin.*

³⁰ *Egiaren seme guztiak onartuko dauz zure aurrean zure parkamenak,
zure ontasun andiak euren pekatuetatik garbitutakoak,
zure erruki azken-bageak,*

³¹ *(seme areik) gizaldien gizaldietan zeure aurrean egonerazoteko.*

*Zeure etxean, Jainko betikoa,
zidor zabalduak dagozan tokian,*

³² *iñor be ez dabil Zugandik kanpo betiko.
Nor da gizona, makala, putz ariña,*

³³ *zure egintza miragarriak ulertzeko,
Zeuk irakasten ez ba'dozu?*

XV GORAPEN-ABESTIA

³⁴ *Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
nire zoria utsaldera jausten laketu ez zendualako.
Nire izena ez dago azalutsen bazkunean idatzita.*

³⁵ *Bestetara baiño; zure bideetan aalegiñaz burrukan egitea*

*billatzen dabenen artean (dago),
zure parkamenetan, zure erruki ugarietan,
euren erabagien zuzentasuna zuzentzeko sendotzen diran artean*

³⁶ *[...] salduta [...] damubageak.*

VIII sorta

¹

² *[...] zure zuzentasuna betiko ezarri zenduan*
... ..

XVI GORAPEN-ABESTIA

⁴ *Eskerrak emoten dautsudaz, Jauna,
lur legorretik errekek darien tokietara eroan nenduzulako,
agorizen ez diran iturri-tokietara,
garastada-urtegi ertzera.*

⁵ *Lorategia jarri zenduan basamortuan:
gauarbolak, zumarrak, enbor gogorak.
Zeure diztira.*

⁶ *Iturburu ezkututsu baten ondoan
bizi-zugatzak jagiten dira ur-landaren artean.*

Arein artean erneko da, ernamiña lez, landarategi betikoa.

⁷ *Arein zusterak ezetasunezko joera sakonetaruntz,
arein bidez edango dabe enborrak ur-bizia,*

⁸ *ur-bizi betikoen erdikide izango dira.*

*Iturri-ondoan, zarta-artean,
larratuko dira basoko abere guztiak.
Enborren artetik bide barriak eta zidorrak edegiko dira.*

⁹ Aren adarrak txori guztientat balio izango dabe.

Ur-ietatik asiko dira egaztadan egaztiak, arein orritza-artetik jagiko dira.

¹⁰ Nor izango da ur-biziai bere zusterrak luzatuko dautsezan ori?

Nok erneazoko dau santutasun-ernamiña, egiazko alorrak?

¹¹ Onezkeru aretzaz iñok ez pentsatzeraiño geratuko da ezkutuan.

Aren misterioa ez da ezagutua izango, sillututa geratuko da.

Baiña Zuk, Jainko orrek!, babestu egin zenduan aren gerokoa

zure gizon arrigarrien misterioan,

¹² bikaintasun-misterioen artean eta sugarren zurrunbilloan.

Bitartean, iñor be ez da urreratuko bizi-iturburura, santutasuna darion iturrira, landarategi betikoetara.

¹³ Ez da edango, ez fruturik sortuko, ukatu egingo yake odeien ugaritasuna,

¹⁴ bizi-iturria, erreka agortu-eziña ikusia izan dalako, baiña ez onartua, aztertua bai, baiña ez sinistua.

¹⁵ Ibai ondatzailleak urratutako lurra lez geratu nintzan, lopatzaz bete nenduen.

¹⁶ Baiña Zuk, ene Jainko orrek, nigan barriro berbak jarri dozuz, udazken-auria lez, egarri diran guztientzat eta iñoiz be isilduko ez diran ur-bizien iturri lez.

¹⁷ Zabaldu egingo dira zeruak amaibagako euriz;

legortu ta agortuta dagozan larren gaiñera edozein izaki bizirentzat urak ugari jausiko dira.

¹⁸ [Zugatzak] gerizpea emongo dautsee txoriai ta abereai.

¹⁹ Zuzenbageak, beruna lez, ur oldartsuetako sakonera joango dira.

²⁰ Suaren arrapakin izango dira, kiskalduak. Baiña landarategi alekorra

iturri betikoan aziko da atsegin-tokia izateko.

²¹ Neugaitik edegi zenduzan aren iturburuak eta arein ur-gaiñeari negurri iraunkorra emon zeutsan.

Utsunetan eta eguzkitan jarritako arein zugatzen-tzat,

²² igartu ez daitezana, arein baruza zabaldu daiten, ikusgarri.

Neure eskuen indar guztia jarten dot

²³ arein ur-bideak sakontzeko. Orregaitik, arein zusterrak arkaitz urratu-eziñetan sartzen dira.

Lurra be sendotu egiten da, baita aren enborra be.

²⁴ Uda-erdian be euren ezetasuna gordeten dabe. Baiña, nik neure eskuak atzeratu ba'nengiz, guztia gaztokia lez izango litzake,

²⁵ mendi-bizkarrak lez aren enborrak, [aren arraiñak] txerketx utsalak, aren enborrak igartuta, biurtuta, uaska-ondoetan.

²⁶ Aren frutuak basa-frutu biurtuko litzakez. Aren baruza igartu egingo litzake bero goriagaitik. Ez litzake urentzat [...] igarobiderik izango. Dardarak, aintzira-gatxak, zauri zabalduak.

²⁷ Olantxe natza bertan-beera itzitako izaki bat lez,

indar bagarik nago.

Nire zauriak andiagotu egiten dira

²⁸ samiñez, miñez, ariñaldi bagarik.

Nire biotza zati-zati eginda dago. Eiota nire barruan.

Sheol'era jatsiten diranak lez,

²⁹ ildakoakaz noa jitoan lez...

Nire espiritua leza-baztarreraiño eldu zan.

Nire arimea makaltzen doa gau ta egun, eten bagarik.

³⁰ Nire azurretara su urtua isurten da, aren garrak irunsi egiten nau egunen barruan

³¹ neure indarrak ezerezturik, edozein iraupenek jasan daiken baiño geiago.

Iruntsiten diardu nire aragia, beronen aurka erabagi dana bete arte.

³⁴ Estaldu egiten nabe olatuak. Ito bearrez nago. Barruruntz eta kanporuntz indarrez erakarrita, neure eziña somatzen dot.

Nire gizontasunaren kemena argizari urtua lez eze-rezten da;

koldartasuna soillik geratzen da ... [triskantzta[... Itsas-aundiko sakonak orroeka diardue; aren olatuak itzalak dira, erraldoiak, baiña odolezkoak.

³³ Lurra garrasika dago munduaren gaiñera datorren ondamediagaitik.

Azpikariak, «Goral», diño deadarka.

Lurreko bizilagun guztiak burutik jota dagoz,

³⁴ ondamendi aundiaren erdian alboraka dabiz. Jaungoikoak trumoia lez joerazoten dau bere abots aaltsua.

Aren bizitoki santua gorabeeratu egiten da

Aren aintzaren tximits-isil dirdiratsuz.

³⁵ Zeruetako gudarozteak bere abotsa jasoten dau.

Munduaren ondopeak dardaraka ta koloka dagoz.

³⁶ Zeruko indartsuen guduak mundua zigorkadaz astintzen dau.

Zigor ori, ondamendi amaibagea bete arte ez da gel-dituko.

Orrelaxe izango da amaia.

BERTSOETAN

EUZKO LOREA

Emon ta zabaltzazu
munduan frutua...

*Amazazpi urte, ikasten zolia,
atzerrira joan da eziketa osatzen.
Ikastaro amaitu, eiten dabe jaya
ikasle-urtien garaipena ospatzen.*

* * *

*Ameriketan eraz eiten dabe dana:
inglesez itzeiten, ekandu beriaz
neskak jantzi luze, ta mutillak, barriz
etiketa utsaz, osoro jantziak.*

* * *

*Ordu bi luziak paseu ziran bertan.
Saridun ikasle, danak banan-banan*

*estradora igonda, eiten dabe berba
eskarrak emoten, agurtzen, eta abar.*

* * *

*Eldu da berentzat igoteko unia.
Oste andin aurrian ein biar dau berba.
Itz laburrakaz agurtzen dauz danak
eta amaituteko, biotzeko garra urten dau abotik:
Euzkadi azkatuta, gora! diño euzkeraz.*

* * *

*Oste andi aretan, Deustu'ko semia
bizar baltz artian zidarrezko uliak,
kaikugaz jantzita, buruan txapela
jgora! erantzuten dau, malkua begian.*

UTARSUS

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1983-84 IKASTAROA
AMASEIGARRENA
BIZKAIERAZ

LAU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUNETAN

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA: 6.000 peseta.

IZENA EMOTeko TOKIA: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGUI, 14 - 2
BILBO
URRUTIZKIÑA 423.53.22

16.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO, 4 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES O MARTES Y JUEVES

HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 6.000 Ptas.

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK
COLON DE LARREATEGUI, 14-2 - BILBAO
TELEFONO 423.53.22

JUAN DE LA COSA

Juan de la Cosa Somorrostro araneke semea zan, eta Bizkai'ko Enkarterrian 1.480'tik 1511'ra bizi izan zan.

Juan de la Cosa baiño izen ezagunagoa ei eban Juan Bizkaino.

Indiak aurkitzean, Kolon'en lenengo itxas-aldian, onen ontziko lemazain izan zan eta orregaitik Ameriken aurkitzaileen artean lenengoetarikoa da.

Bigarren itxas-aldian, nagusi zan bere ontzia ondatu zalako, «Niña» karabelearen mariñel izan zan.

Gizon kementsu ta trebetzat artua, lur barriak aurkitzen jarraitzeko aukeratu eben eta lortu be bai bien artean eta euren asmoak an bete, Alonso Hojeda'k Santa Maria'ko Kaien gertu ebazan lau ontzien lemazain eta nagusi zala.

1499n. urtean barriro eldu zan Indietara, andik España'ra biurtu eta beste itxas-aldi edo txango bat egin egiala eskatu eutsoen. Joan-etorri onetan Triana'ko Rodrigo Bastidas'en itxas-ontzi bi agindu ebazan eta 1.501'eko urtarrillaren lenengoan Cadiz'tik urtenda, Indietako Cartagena begitan arturik, ementxe lurreratu zan.

Laugarren joan-etorria egin eta barriro España'ra etorri zanean Isabel Erregiñearen aurrera agertu zan eta aurkitu ebazan gauza guztien barria emon eutson, berak margoturiko Indietako lur-irudi bat emonaz.

* * *

Aurrerantzean ezer egin barik geratu zala uste dozue?

Ez olakoik!

1.504n. urtean lau ontziren buruzagi zala, Uraba'ra eldu zan eta 1.505'ean itzulita 491.708 marabedi emon eutsozan erregeari, aугaitik 50.000 marabedi emonda bizitzareko saritu eta kaltetako er-tzain nagusi izendatu eben.

1.507'an Indietatik aberaskiz beterik etozan ontzi biri itxaroten jaken San Vicente ta Cadiz'ko lur-adar inguruetan. Egin-bear au ondorenik ordaingarrienaz bete eban.

Urte onen barruan Uraba'rantz itxasoratu zan Huesca ta Pinta deritxoen ontziakaz eta euren lemazaiñen agintari lez.

Andik eros-sari ta irabazkiz beterik itzulita, errege-aginduz 100.000 marabedi balio eutsoezan eta geiago 6.000 itxas-bazterretako laguntzagaitik, baita beste sari, bezuza, doai asko be, La Española'n lasai ta eroso biziteko.

* * *

Oraingoan baretuko ete zan?

Ezta! Ugarte onetara urten baiño len, Hojeda bere laguna eziñez egoala-ta, lur sendoan erri bat egiteko asmoa eukan lez, Juan de la Cosa'k emon eutson duango laguntza eta orrelan Hojeda'ren laguntzaille zala, Indietako arazoak bere eskuetan egozan eta Foseka gotzaiñaren bidez Uraba'ko agintari izendatua izatea lortu eban.

1.509n. urtean joan zan Juan de la Cosa ugarte aretara iru ontzigaz eta 200 gizonen nagusi lez.

An Hojeda'k ondo ta biotz onez artu eban. Au gero Nicuesa'gaz asarretu zan, euren agintaritza-mugen arazoa zala-ta.

Cosa'k egin ebazan euren artean bakeak Darien'eko Ibai Nagusia muga lez ezarrita, batak iparraldeko arloa ta besteak sarkaldekoa artzekotan.

* * *

1.501n. urtean Bere ontziakaz La Española'tik urten eban Hojeda'ren lur sendoko erria sortzeko praille batzuk eta bertako seme batzuk laguntzaille ebazala, baiña ez eban bere elburua lortu, ango seme asko beraganatu eziñaz.

Cosa'k ango jenteagaz kontuz ibilteko esan eutsen, baiña españatarrak ez eutsoen jaramondik egin eta areik astinduten jarraitu eben.

Bertako semeak geiagotu ta indartu egin ziran eta euren dardai pozituakaz trizkantza ta illaldiragarria egin eben, diru-gosez sakabanatuta ebiltzazan españatarran artean...

Cosa, errubakoa izan arren, dardai posoitu batek zaurituta gelditu zan guda onetan.

Ogei ta amaika urte baiño ez ebazan mundu onetan eta ainbeste dira bere gizaundi-egiteak!

LETONA'k

NEGAR-ENTZULEAK...

Gizadiaren samintasunak aundi ta ugariak dirala ezin ukatua lei.

Ori da egunero geure inguruan ikusten dogun gauza bat.

Danok zoriontasunaren billa eten бага gabiz, baina zoriontasun ori, gizonik geienetan, gutxi ta labur agiri dan gauza da.

Atsekabe gorriak erreskadan datoz gure barrura. Irakiten dagoan lapikoaren lurrinari urteiera bat emoten ez'ba jako eztanda edo zart egiten dau lapikoak eta, bardin, atsekabez beterik dagoan biotzari atsekabeon urteiera bat emoten ez baioko, zart egiten dau gizonaren biotzak ondoren larri ta ikaragarriakaz eta batzuetan norberaren burua ilteraiño narrastu ta eroaten dabe gizon errukarri ori.

* * *

Olakorik jazo ez daiten gure samintasunak utsitu egin bear doguz zelan edo alan.

Era asko dira biotz ori utsitetuko, errezen, egin korren bat geure kezka ta samiñak besteren bat gure erdikide egitea, beste bateri gure barrua agertutea edo jakin erazitea da...

Lanbagematasunak, gaisotasunak, bakerik ezak eta abarrek eta abarrek mingoztuten ditue gure biotzak eta, barrua usteldu ez daiten, entzule bat, negar entzule bat bear dogu.

Entzule ori izan daiteke senar edo emaztea, lagun ona, osagillea, autorlea.

Beste bateri gure barrua azalduaz osatu daitezke gure samin, kezka eta atsekabeak. Or dago bide bat gure samin lurrinari urteera emoteko eta baketuteko.

Badira batzuk iñorengan be usterik ez dabenak. Errukarriak eurok bene-benetan. Len orain baiño geiago, uste ona autorleagan euken sinistedunak.

Orain siñismena asko gutxitu dan ezkerro eta munduak abadeakanako uste ona uxatu daualako, guregana negar egitera datozenak oso gitxitu dira, gizadiaren kalterako; baiña orain iñoiz baiño negar entzule geiago bear ditu gizadiak, estutasunak eta larritasunak geituaz doazalako gaurko mundu naastatuan.

Ez autorleak bakarrik, bai ta senideak eta biotz ona daben gizaki guztiak negar entzule izan bear dira, orrelan onura aundiak ekarriko lituelako gizadi saminduarentzat.

Ara gizadiaren eta batez be kristau guztien egin bear garrantzitsu bat: Eroapen aundia euke bear izan arren be, negar entzule biurtu.

Besteari entzuten ikasi.

Batez bere txiro, gaixo ta bakardadean bizi diranen negar entzule izan bear dogu, euron negar-zapi ta poztzaille, inguru guztian anaitasuna ta bakea ereiteko.

Emon daigula Jaunak guztioi biotz samur ta maitaillea!!!

GALLASTEGI'tar Klaudiok

ALPERREKO H

«Euskeran H izkia ez dogu INOIZ ezagutu... H'a erabilten ezin IÑOR beartu leike.»

(Intza'r Damaso Aitar DEIA'N, 1983'ko Dagoniñaren 7'an).

...Eta beste egi askoren artean, alperreko H'ren aurka Damaso Aita agurgarriak auxe diño: «60 urte baiño geiago euskeraz idazten dogunok, berrero ikasi bear ete dogu euskeraz idazten?»

* * *

Damaso Aita jakintsua napartarra da, ta 60 urtetan alperreko H barik idatzi dau... Berak diñoenez, gure euskeran 200 urte azkenetan beintzat, izki edo «letra» ori ez da erabili.

Eta Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n (% 92 inguru euskaldunen artean) alperreko H ez da IÑOIZ erabili... Gaur egunean be euskal idazle onenak H barik idazten dabe.

Gaiñera, beste izkuntza batzutan be alperreko izki ori kentzeko alegintzen dabiltz.

Zer dala-ta, orduan, «el batua» zaleen burukaldi edo naikeri bategaitik, XX'gn.gizaldian euskaldunak nai-ta-ez erabili bear dogu alperreko H?

Alperrako H'gaz idaztea, arrazoirik ez daukanari arrazoia emotea da!... Ez idatzi, ba, alperreko H'gaz!

* * *

Gure baserritarrak, euren jatorrizko euskal txairotasunagaz, esaten dabe: «Guk alperreko gauzak ganbarara eroaten doguz, edo zikin-ontzira jaurtzen doguz..., zergaitik, ba, laia antzeko alperreko «letra» orregaz ez da egiten bardin?».

Zuok, baserritarrak, ondiño zentzuna ez dozue galdu, zentzudunak zarie, baiña «el batua» zaleak eta euren lagun batzuk, ikusten dozuenez, esan leike zentzuna galdu dabela, ba gure euskerean alperreko H erabiltea ez ba'da ZENTZUNGABEKERIA, munduan ez dago ZENTZUNGABEKERIRIK.

Orregaitik, gure baserritarren zentzuna ez ba dogu be, zentzun apur bat ba'daukagu EZ dogu idatzi bear alperreko H'gaz!

* * *

Gudea egin eben gudariak, eta arrezkero Alderdia eutsi ta indartu daben abertzale geienak, ez dabe ulertzen Garaikoetxea zelan izan daiteken «Lehendakaria», Agirre ta Leizaola LENDAKARIAK izan ba ziran.

Ulertu-eziña benetan, ba berba zuzena LENDAKARIA da... Bakar-bakarrrik LENDAKARIA!

Or argi ikusten da batzuen tenteltasuna noragiño eltzen dan!

Gizon ospetsu batek esan eban munduko itxas-ontzia tentelen pisuagaitik ondatuko dala.

Olan jarraitzen ba'dogu euskereari bardin jazoko jako: tentelen pisuagaitik ondatuko da!

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia